



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Blas de Oterori buruzko kongresua gaur amaituko da, Jose Saramago eta Bernardo Atxagaren hitzaldiarekin.

Arkatx gorriaren mehatxupean

BLAS DE OTERO ETA ZENTSURA. 'Angel fieramente humano' kaleratu zuenetik, poetak gainean eduki zuen zentsura. Lucia Montejok irakaslea egileak jasandako kontrolaz mintzatu zen atzo

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Zertzelada batzuk beste-rik ez zituen eman nahi Lucia Montejok Gurrutxagak, zentsurak Blas de Oteroren obra zenbateraino markatu zuen azaltzeko nahikoa. Baina hamar urtez Madrilgo artxibategi guztiak arakatzera eraman zuen odisea kontatzen hasi zenean, bertan aurkituriko eta arkatz gorriaren eraso jasandako poemen kopurua errezitatzen zihoan heinean, Bilboko poetak jasandako presio moral eta ekonomikoaren mapa zehatza osatu zuen.

Otero sormen lanaren mugararen eraman zuen presioa. Mutiazioa eta ezabaketa sinonimo zituen presioa. Eta halaxe esan zuen Montejok berak: «Oterok benetako kalbarioa jasan behar izan zuen. Kontrol zorrotz eta etengabe baten pean eduki zuten zentsoreek».

Zentsura eta autozentsura

Gerra ostean ezarri zuten zentsura gogorra jasan zuten genero literarioak narratiba eta antzerkia izan ziren, eta neurri apalagoan poesiak. Hala ere, Erregimenarekiko kontrako jarraitzaileak, poeta jakin batzuek eraso bortitza pairatu behar izan

zuten beren ibilbide artistiko osoan zehar. Horietako bat Blas de Otero izan zen.

Otero 1949tik, hau da, *Angel fieramente humano* atera zuenetik, izan zen zentsuratua; eta hurrengoekin egoerak okerrera egin zuen. Espainian baimenik lortzen ez zuela eta *En castellano* Parisen argitaratu behar izan zuen. *Que trata de España*-ren kasuan, zentsura tramiteek bi urte iraun zuten. Liburuko poemak heren bat baino gehiago ezabatu behar izan zituen, eta gainerakoak eraldatu. Baina txarrena ez zen hori. Argitaratzearen beharrak Otero autozentsurara eraman izana, horixe zen gogorra. «Intelektual askok poetari egiten zihardutena atzerrian salatu zuten», zioen Montejok.

1959an, Sorbona Unibertsitateak Antonio Machadori eskaini zion omenaldian, zera esan zion Oterok Jean Truffauti: «Egun Espainian poeta zenbait gaia jorratu ezinik dabil. Bere izatea mehatxatzen duten oztopo etengabeak aurre egin behar die. Baina egoera honek, nahiz eta sormen lana mugatzen duen, baditu bere abantailak: artistak, bere testuinguruan, gizakien zorigaitza bera jasaten du».

Saihesbideak asmatuz

Alabaina, erdal esaera batek dioen bezala, legeak egin zuten trianpa ere asmatu zuen. Kasu honetan poetek, autozentsura hainbeste praktikatzaren ondorioz, zentsoreen interpretaziorik zorrotzena saihesteko modua aurkitu zuten berehala. Sortzaileek usu erabili zuten teknikatiko bat —Otero bera tarteko—, liburu batean bildu aurretik jatorrizko testuak literatur aldizkarietan argitaratzea zen. Oterok, adibidez, kolaborazio estua izan zuen *Insula*-rekin, eta *Que trata de España* liburuko poemetak askok haren bidez ikusi zuten argia. Horrek, noski, hainbat buruhauste ekarri zizkion aldizkariari. Zeren formulak ez zuten beti funtzionatu. «Horrelakotan poetak ez zuten zuzenean zentsuraren kolpea jasotzen; organoaren oniritzia ez zuten testuak kaleratzeagatik, aldizkaria zen bahiketari edo epe baterako produktua argitaratzen uzteari aurre egin behar ziona».

Eta *Insula*-k sarritan ezagutu zuen azken hori. 1956ko otsailan, Oteroren poema batzuk eskaintzeagatik, abendua arte argitalpen baimenik gabe utzi

ESANAK

LUCIA M. GURRUTXAGA
(UNEDeko irakaslea)

«Oterok benetako kalbarioa jasan behar izan zuen. Kontrol zorrotz eta etengabe baten pean egon zen»

«Bilboko poetari zentsoreek egindakoa nazioartean salatu zuten intelektual askok»

«Obren izenburuak nahiko argigarriak ziren; irakurleari barrukoaren balio bikoitza esaten zioten»

zuen aldizkaria Juan Aparicio Prentsa arduradun nagusiak. Beste batean, *Insula*-tik testu batzuk ezabatu izana justifikatzeko, zera idatzi zuen zentsoreak bere txostenean: «bilis politikoa zeukaten».

Baina gainerako egileek bezala, Oterok ez zuen amorerik eman zentsuraren kontrako borrokan eta hainbat poematan zentsoreen gehiegikeria salatu zuen. Era berean, Gobernuaren kontrola alboratzeko teknikak garatzen jarraitu zuen, hala nola epigrafeak, anagramak, irudiak eta sinboloak, puntu jarriak edo ironia. «Bere obren izenburuak nahiko argigarriak ziren, irakurlea barruan aurkituko zuenaren balio bikoitza ohartarazten baitzuen», zioen Montejok.

LAGURAEAN



BARRIO PEDRO
Carmelo Bernaola.

MUSIKA

Carmelo Bernaola konpositoreak Guerrero Fundazioaren Saria jasoko du gaur

Cervantes sariaren pareko da musikan Guerrero Fundazioaren Musika Saria, eta aurten Carmelo Bernaola Otxandioko klarinete jotzaile eta musikagileari eman diote. Gaur jasoko du 72.121,45 euroko saria. Alicia de Larrocha, Xavier Montsalvatge, Cristobal Halffter, Joaquin Rodrigo eta Anton Garcia Abril dira, besteak beste, sari hori jasotako musikariak. Bernaolak 72 urterekin musika garaikidearen konposizioan jarraitzen du.

Sex Mob taldeak ezohiko jazz emanaldia eskainiko du gaur, Donostian

Nirvana, Rolling Stones, James Brown edota Smashing Pumpkinsen kantuak hartu eta jazz moldaketekin jotzen ditu Sex Mob taldeak. New Yorkeko lau musikari osatzen dute: Steven Bernstein (tronpeta), Briggan Kraus (saxofoia), Tony Scherr (baxua) eta Kenny Wollesen (bateria). Wollesenek Ruper Ordorikaren azken bi diskoetan parte hartu du. Sex Moben azken diskoak James Bonden lehen filmetako zenbait konposizio biltzen ditu. Kontzertua 20:30ean hasiko da, Gazteszena aretoan.

LITERATURA

Alejandriako Liburutegiak 200.000 liburu eskainiko ditu Interneten

Alejandriako Liburutegi berria apirilean irekiko da. Haren sustatze kanpainaren barruan, 200.000 liburu eta balio handiko eskuizkribuak eskainiko ditu Interneteko bere web orrian, hurrengo apiriletik aurrera. Testua arabieraz, ingelesez eta frantsesez aurkitu ahal izango dira.